

2014KO OTSAILAREN 10KO EBAZPENA, GIPUZKOAKO PARKETXE SAREA FUNDAZIOAREN KONTRATAZIO MAHAIARENA, AIZKORRI-ARATZEKO PARKE NATURALEKO PARKETXE HEDATUAN (ZEGAMAKO ANDUETZA BASERRIAN) ARRETA EMATEKO ETA HURA DINAMIZATZEKO 001/2013 KONTRATUA ESLEITZEN DUENA

ONDORIOZ: Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioaren Patronatoak 2013ko azaroaren 27ean adostu zuen Aizkorri-Aratzeko Parke Naturaleko parketxe hedatuaren (Zegamako Anduetza baserriaren) arreta eta haren dinamizazioa kontratatzeko 001/2013 espedientea onartzea, prozedura ireki bidez esleitzeko, lizitazioaren gehieneko prezioa 60.000 € izanik (BEZ barne), Fundazioak zehaztutako administrazio klausulen pleguen eta baldintza teknikoen agiriaren arabera.

ONDORIOZ: Kontratua, dituen zenbatekoa eta edukia aintzat hartuta, 2. mailako kontratu gisa sailkatu zen Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioko Patronatoak 2010eko irailaren 13an onartutako barne kontratazio arauen arabera. Arau horiek Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioaren webgunean (<http://www.gipuzkoamendizmendi.net/parketxeak>) argitaratu ziren. Hala, kontratua, oro har, prozedura negoziatu bidez esleitu ahal izango da, baina baita prozedura ireki bidez ere, Fundazioko Patronatuak, berme eta gardentasun handiagoa lortzeko, horixe erabakitzen badu, hain zuzen, 2013ko azaroaren 27ean egin zuen bezala.

ONDORIOZ: Lizitazio-deialdia, administrazio-klausulen pleguak eta baldintza teknikoen agiria 2013ko azaroaren 28an argitaratu ziren Gipuzkoako Parketxe Sarea Fundazioaren webgunean (<http://www.gipuzkoamendizmendi.net/parketxeak>) eta iragarkia ikusgai dago oraindik ere, kontratazio 12. barne arauetan zehaztutakoa betez.

ONDORIOZ: Proposamenak aurkezteko epea 2013ko abenduaren 19an amaitu zen. Honakoak dira jaso direnak:

- INGURUGIRO ZERBITZUAK ARTELATZ S. COOP-ek proposamena aurkeztu zuen 2013ko abenduaren 19an.
- INGURUMEN ZERBITZUAK BIDEAN-ek proposamena aurkeztu zuten 2013ko abenduaren 19an.

ONDORIOZ: Kontratazio mahaia, Julian Unanue Bereziartua jauna (Patronatuaren presidenteordea) buru zuena, Luis Mari Zaldua Etxabe jauna (Fundazioaren zuzendaria) mahaikide zituena, Edurne Albizu Ormazabal anderea gonbidatu zuena (hitz egin bai, baina bozkatzeko eskubiderik ez duena) eta Alfonso Acarreta Rodríguez jauna (Patronatuko idazkaria) idazkari (hitz egin bai, baina bozkatzeko eskubiderik ez duena) gisa zuena, 2014ko urtarrilaren 15ean eta otsailaren 4ean bildu zen, aurkeztutako proposamenak aztertu, ikuskatu eta baloratzeko.

KONTUAN HARTU DUTE: Kontratazio mahaiak, proposamenak aztertu ondoren, INGURUGIRO ZERBITZUAK ARTELATZ S. COOP-i kontratua esleitzea proposatu du, haren proposamena delako egokiena, ikuspegi teknikoari eta kalitateari dagokionez, behintzat, fundazioaren nahiak betetzeko.

Erreferentziazko espedienteak dituen pleguak, jasotako dokumentazioa, aipatutako xedapenak eta aplikazio orokorreko gainerako kontuak aztertu dira.

EBATZI DUT:

LEHENDABIZI- INGURUGIRO ZERBITZUAK ARTELATZ S. COOP (CIF: F-20565941) erakundeari esleitzea 001/2013 zenbakidun kontratazio espedientearen, Aizkorri-Aratzeko Parke Naturaleko parketxe hedatuaren (Zegamako Anduetza baserriaren) arreta eta haren dinamizazio zerbitzua kontratatzeke. Erakunde esleipendunak kontratu honen bitartez ordainduko dion prezioa 58.490 € izango da (BEZ barne).

BIGARRENA.- Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 151. eta 153. artikuluetan adierazitakoaren arabera, interesatuek kontratazio mahaiari eskatu ahal izango diote proposamenak baztertzeko erabilitako arrazoiei buruzko informazioa, hala nola behin-behineko esleipena jasotzeko erabakigarriak diren ezaugarrien ingurukoa.

HIRUGARRENA.- Honako ebazpena jakinaraziko zaie interesatuei eta kontratazio organoaren profileen argitaratuko da (<http://www.gipuzkoamendizmendi.net/parketxeak>), Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bateginaren 42. eta 135.3. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

Donostian, 2014ko otsailaren 10

Alfonso Acarreta Rodríguez
Kontratazio Mahaiko idazkaria

Julian Unanue Bereziartua
O. E. Mahai burua